

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### ONDARE ZERBITZUA

#### **Lizitazio publikoa alokatzeko lehiaketa bidez, lokal bat Gasteizen autismoa duten pertsonentzako Eguneko Zentroa jartzeko**

Foru Gobernu Kontseiluaren 316/2022 Akordioaren bidez, maiatzaren 31koa, lehiaketa bidezko lizitazio publikorako deialdia onartu da, autismoa duten pertsonentzako eguneko zentro gisa erabiliko den lokal bat alokatzeko Gasteizen. Erabaki horretan, halaber, lehiaketa arautuko duten baldintzen pleguak onartu dira, eta horien funtsezko edukia honako hau da:

1. Deialdiaren xedea: autismoa dutenentzako eguneko centro gisa erabiliko den lokal bat alokatzea Gasteizen.
2. Lizitazio mota: hilean 3.400 euro, BEZa eta komunitate-gastuak barne.
3. Kontratuaren iraupena: hamar urte; urtez urte luzatu ahal izango da.
4. Bermea: lizitazioan parte hartzeko, 1.000 euroko behin-behineko fidantza eratu beharko da.
5. Baldintzen plegua: interesdunek eskuragarri dute honako helbide hauetan:
  - Arabako Foru Aldundiko Ogasunaren Erregistroa eta Informazioa (Samaniego kalea 14, beheko solairua, Vitoria-Gasteiz).
  - Ondare Zerbitzua (Samaniego kalea 14-4. solairua, Vitoria-Gasteiz).
  - Arabako Foru Aldundiaren webgunea: [www.araba.eus](http://www.araba.eus).
6. Eskaintzak aurkezteko lekua: Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorra (Probintzia plaza 5-behea, Vitoria-Gasteiz). Proposamenak postaz ete bidali abal izango dira, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 80. Artikuluan ezarritakoaren arabera.
7. Eskaintzak aurkezteko epea: hogeita hamar egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, epea amaitzen den eguneko 14:30ak arte, salbu eta jaieguna bada, orduan hurrengo egun baliodunera arte luzatuko baita.

Vitoria-Gasteiz. 2022ko maiatzaren 31

*Ondare Zerbitzuaren burua*  
**LUIS ALBERTO VALDOR FERNÁNDEZ**